

## AHALDUNTZE BERTSO ESKOLA 2019-2020 ikasturtea

Izena emateko epea: 2019ko irailaren 9tik 20ra

Bertsolaritzan emakumeak plazan izateak duen garrantziaz jabeturik, eta emakumeen jendaurreratzean ematen diren ezaugarri orokorrak kontutan hartuta, **bertsolari zein gai-jartzaile** gisa plazan aurrera egin nahi duten emakumeentzako lagungarri izateko eskainiko da Ahalduntze Bertso Eskola.

Ahalduntze Bertso Eskolan parte har dezakete bat-batekoan maila ezberdina duten bertsolariak zein ibilbide ezberdinak dituzten gai jartzaileak, gune honen oinarria aniztasuna baita.

### Ezaugarriak

- Maiztasuna: hilean behin, larunbat goizez (10:00etatik 14:00etara). Ikasturtea 2019ko urrian hasi eta 2020ko ekainean bukatuko da.
- Lekua: Amasa-Villabonako Subijana etxean, Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen egoitzan (Kale Nagusia, 70. 20150 Amasa-Villabona).
- Partaide kopurua: gutxienez 8.

### Oinarriak

- Konpromisoa:** Ikasturte osoan zehar eskoletara etortzea eta dinamikan parte-hartzea eskatuko zaie bertso eskolan izena eman duten partaideei.
- Esperimentazioa** da bertso eskola honen oinarria. Metodologia ere egokitzen joango gara taldearen bilakaeraren arabera.
- Aniztasuna:** Emakumeen arteko eta ikuspegien arteko aniztasuna eta errespetua oinarri izango da, epairik gabeko begirada landuz. Zaintza erdigunean jarriko da.

AHALDUNTZE BERTSO ESKOLA 2019-2020	
<u>2019</u> Urriak 19 Azaroak 16 Abenduak 21	<b>Gai-jartzaile lanetan:</b> Ainhoa Aranburu, Maite Berriozabal
<u>2020</u> Urtarrilak 18 Otsailak 15 Martxoak 14 Apirilak 25 Maiatzak 16 Ekainak 20	<b>Antolatzaile lanetan:</b> Ixiar Eizagirre

### **Izen-ematea:**

- Bertsozale Elkarteko [www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus) atarian, formularioa betez. Bertan, datu hauek eskatuko zaizkizu:
  - o Zure izen-abizenak, telefonoa eta e-maila.
  - o Adieraztea zer roletan trebatzeko ematen duzun izena bertso-eskolan: bertsolari modura, gai jartzaile modura, ala biak.
  - o Matrikula kobratzeko zure kontu korrontearen 20 zenbakiak.
  - o Oharrak uzteko aukera duzu bertan.
- Izena emateko epea:
  - o 2019ko irailaren 9an hasiko da, 8:00etan, eta irailaren 20an itxiko da.
  - o Taldea osatzeko izen-emate ordena hartuko da kontutan.
- Taldearen osaketaren berri irailaren 27an emango da eta matrikula kobratuko da.
- Izena emateak bertso-eskolaren oinarriak onartzen direla adierazten du.

### **Matrikula:**

- Zenbatekoa: 150 €
- Matrikula kobratutakoan ez da dirurik itzuliko.
- Matrikulatik kanpo gelditzen dira ikasturtean zehar sor daitezkeen bestelako ekintza gehigarriak.

*\*Ahalduntze Bertso Eskolaren kostu nagusia Emakunderen dirulaguntzaren bidez osatu da.*